

# Sarrera

**G**azteak eta euskara gai hartuta, gazteek gazteentzat eginiko lanez osatu dugu *Jaztenen* 4. ale hau.

Hasteko, Xabier Letonak, *Argiako* kazetari arrasatearrak, Fermin Muguruza kantari ezagunari egindako elkarrizketa dakargu. Ferminek berak esan bezala jasotzen dira bere bizitzako pasadizo bitxiak, euskaldunagotzen joateko behar pertsonalak jota, egin, egiten eta egin asmo dituenak, zertan eragin gura duen musikaren bidez,... eta beste hainbat kontu.

Bigarren lanean, Jon Sarasua, bertsolari atxabaltar ezaguna, bere buruaz ari zaigu bakarrizketan. Izenaren eta abizenaren arteko elkarrizketa bizia dakarkigu: geure lurtean eta geurez zerbait izaten jarraitu ahal izateko daukan gogo, ikusten dituen zailtasunak, kontzientziaren egitekoa zein den,... eta beste zenbait burutapen sakon.

Ferminen solasaldiak eta Jonen bakarrizketak, irakurle bizkorra ohartuko denez, bide

ezberdinetatik leku berera garamatzaten bi adibide eredugarri dira. Umetatik, euskararen hedapena bere barrenean konszienteki bizi izan duen gazte sentiberaren adibide da Jon; Fermin, berriz, umetan euskararekin bizi izandako harreman desorekatuaz nazkatutik, euskaldundu -behar den moduan- eta euskararen bidez «fuego real» egiten diharduena. Biak ere euskaldun osoak: bata mahoizko frakaduna eta bestea txupa urratua duena, bata *Balentin Enbeita* eta bestea *Gabriel Aresti*. Biak osagarri.

Hurrengo bi artikululuzeetan, Deba bailarako hainbat ikastetxetan gazte-taldeak batu eta euren artean izandako eritzi trukaketaren berri ematen da.

Oso garrantzitsua delakoan, egin dezagun bi lan hauen historiatxoa, hau da, nortzuren artean eginak diren, nondik nora datozen, zer diren eta zer ez diren aurretiaz jakiteko:

89ko abenduan, *Eskoriatzako Irakasle Eskolako* bi ikasle elgoibartar, Elena San

Martin eta Alex Legorburu, Eibarko Euskara Zerbitzura joan ziren «praktikak» egitera Fernando Muniozguerenen ingurura. Ordurako, azken honek, “gazteak eta euskara” gaia hartuta -gazteekin eta ez gazteentzat- kanpaina bati ekiteko gogo bizia zeukan. Fetxa horietan eman zitzaien hasiera, beraz, eztabaida-taldeei Eibarko Zuloaga Institutuan eta Armeria Eskolan 16-18 urteko lau talde elkartzuz, bi euskara zekitenekin eta beste bi ez zekitenekin; beranduago, euskaldunak eta erdeldunak nahastuz taldean ateratako eritziak ere jaso zituzten.

Bizpahiru hilabete geroago, Eskoriatzako beste ikasle batek, Noemi Larrañagak, Bergarako Institutuan eratu zituen beste bi eztabaida-talde. Bergarako gazte horien eritziak batu egin zitzaizkien Eibartarrenei, oso ildo beretik zihoazela ohartu ginen eta.

Eta eztabaida taldeekin amaitzeko, Marije Lezeta eta Elena San Martin izan ziren Arrasateko San Biator ikastetxera joan zirenak, aurreko guztiak ezagututa, bertako gazte-talde batekin egotera eta datu berriak jasotzera.

Marije eta Elena izan dira, era berean, aurretiaz egindako transkripzio eta interpretazio-lan guztiak batu eta lana sakontzeaz arduratu direnak. Ale honetan aurkituko duzuna, beraz, gazte euskaldun konszienteek gaztetxoagoen eritziak jaso eta *Txepetxen* eredu teorikoaz baliatuz buruturiko erreflexio lana da.

Bi lan hauek irakurtzeko moduz ere esan behar da zerbait:

Kapitulu guztien hasieran, gazteek esandakoen transkripzioak datoz, beraiek esan bezala jasoak, edonorentzako berez esanguratsuak direnak eta egileen lana irakurtzen hasi aurretik norberarentzako ere erreflexiogai izan ahal direnak. Ez da beraz, inondik inora, lan itxia eta erabat burutua dagoena; ez horixe.

*Adorez eta Atseginez* mintegiaren eskutik buruturiko “Euskal Soziolinguistika” (edo «autoestima areagotzeko») ikastaldien lanaren fruitu da *Jazten* honetan aurkituko duzun interpretazio-lan hau, ikasleek egina eta argitaratzerainoko bidea ikusi duena. Prozesua eta emaitza, biak dira ohartzeko modukoak, berez balioa daukatenak, ezin izango gara beti ohizko adituen esanetara bakarrik egon eta.

Zenbaki honetan aurkitu ahal denaren erreposoa eginda, esan dezadan atzeratu egin dugula apur bat ale hau argitaratzearena, hain zuzen ere, Gipuzkoa aldeko Deba bailara, Tolosaldea eta Donostiako Udaletxeetako Euskara Zerbitzuetatik ekingo zaion «*gazteak eta euskara*» kanpainaren osagarri izan dadin gura izan dugulako.

Gazteez eta euskaraz ari garenez, honez gero oso ondo dakigu «parakaidistarena» egiteak (nonbaiten agertzea zer egin behar duten esatera eta gero ospa egitea) ez duela uzta askorik jasotzeko modurik ematen, etxafleroak, piztu bezain pronto, zarata handia atera arren ez bait du zerua une batzutan baino argitzen, gero itzali egiten da berriro. Esan nahi da kanpainaren emaitzak ebaluatzerakoan kontutan hartu beharko dena han eta hemen ernarazitako eta sendotutako dinamika baino ezingo dela izan: bazterretan ondo piztutako sutetxoak hedatzen eragin, zabalduz joango direnak hondamendi ekologikorik gabeko sutetzar kontrolaezina bilakatu arte.

Bitartean, egiten diren guztiak ez dira alferrikakoak izango, baldin eta euskaldunak izanda bizi gura dugunok apurka-apurka gu baino atzerantxoago daudenak erakartzeko gauza bagara, horiek izan daitezeneurok baino atzerago datozenen erakarle. Beltza eta zurriaren artean jakin egin behar da jokatzene, eta gu zerbait bagara gorrotoa ez dugu bidelagun aproposa; uxatu barik, batu eta landu egin behar da dagoena, gehiago etorriko bada. *J*